

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak babestu du errealitate soziolinguistikoak ez duela Euskararen Legearen aldaketa justifikatzen

*Euskalduna ez den zonaldean, biztanle elebidunen portzentajea % 3,82 da, eta beste % 7,63 elebidun pasiboa (ulertu bai, baina hitz egin ez)*

Martes, 13 de enero de 2015

Hezkuntza kontseilari José Iribasek gaur, asteartea, babestu du [Nafarroako errealitate soziolinguistiko](#) "serio" baten azterketak ez duela Euskaren Legearen aldaketa partzialaren proposamena justifikatzen. Lege horrek euskarazko irakaskuntza euskalduna ez den ikastetxe publikoetan ezartzea bilatzen du dagoen eskaeraren arabera.

Hezkuntzako titularrak, bere arrazoia, 1991, 2001 eta 2011 urteei dagozkien biztanleria-erroldek emandako datuen azterketan oinarritu du; haiei esker, euskararen ezagutzak eta erabilerak Nafarroako zonalde linguistikoetan zer bilakaera izan duen jakin daiteke azken bi hamarraldietan (datuak aldera daitezkeen aldia).

Datu horien arabera, euskalduna ez den zonaldean, elebidunen portzentajea % 3,82 da eta elebidun pasiboena (ulertu bai, baina hitz egin ez) % 7,63; gutxiengo talde bat da biztanleria guztia aintzat hartzen badugu, baina haien eskaerari "berme guztiekin" erantzuten zaie, Iribasek dioenez, itunpeko ikastetxeetan egun egiten den eskaintzarekin.

### Ezagutza eta erabileraren arteko bilakaera ezberdina

Kontseilariak egiaztatu duenez, hizkuntzaren ezagutza handitu bada ere denbora honetan zonalde mistoan nahiz ez euskaldunean –gazteen artean bereziki– euskarak indar txikia izaten jarraitzen du, eta etxean erabilitako hizkuntz portzentajeak egonkor segitzen du.

Zehazki, zonalde ez euskaldunetan elebidun eta elebidun pasiboa dela (ulertu bai, baina hitz egin ez) aitortzen duen biztanle-portzentajea % 3,82 eta % 7,63raino heldu da, hurrenez hurren. Zonalde mistoan, balio horiek % 12,41eraino igo dira (elebiduna) eta % 1,8raino (elebidun pasiboa); zonalde euskaldunetan, % 58,2 (elebiduna) eta % 13ko portzentajeak (elebidun pasiboa) daude.

Nolanahi ere, ezagutzaren igoera hau izan arren, zonalde misto eta ez euskaldunetako udalerrietan ia ez dago % 20ko elebidun-portzentajea gainditzen duen biztanleriarik. Portzentaje hori % 1,14koa zen 2011n zonalde mistoan, eta % 0,28koa, zonalde ez euskaldunetan; elebidunen portzentaje hori, berriz, % 60koa zen, % 50 baino gehiagoko elebidun-dentsitatea duen udalerrri batean bizi zen biztanleriaren kasuan.

Gainera, euskara haurtzaroan gehien hitz egiten den hizkuntza dela dion biztanle-portzentajeek % 2,7 eta % 0,5eko balioetan jarraitzen dute

aldi honetan guztian zonalde misto nahiz ez euskaldunetan.

Datu horiek aztertuta, kontseilariak ondorioztatu duenez, euskararen ezagutza-maila eta haren presentzia familiako hizkuntza moduan "oso ezberdinak dira" zonalde linguistiko ezberdinetan, "Nafarroak duen errealitate soziolinguistikoarekin berarekin" bat etorriz. Hori dela-eta, Foru Gobernuak hizkuntz horri dibertsitatearekiko errespetuaren ikuspegitik babesa emateko borondatea erakutsi du, baina ez dator bat "berdintasuna inposatu" nahi duen proposamen berriarekin.